

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ARROPAK ETA ETXEKO OIHALAK KONPONTZEKO ERAGIKETAK	Iraupena	40
		Baldintzatua	
Kodea	UF1031		
Lanbide-arloa	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA		
Lanbide-eremua	Ehun- eta larru-jantzigintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Arropa eta etxeke oihalen konponketak	Iraupena	100
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarrizko teknikak (zeharkakoa)	Iraupena	60

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1226\_1 gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin eta, partzialki, LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin, arropen eta etxeke oihalen konponketako desmuntatze-, mozte-, mihiztatze- eta akabera-eragiketen espezifikotasunei dagokienez.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Artikuluak, arropak eta etxeke oihalak sailkatzea, baita horien osagaiak ere.

EI1.1 Artikuluak, ehun eta larruzko arropak eta etxeke oihalak zerrendatzea, eta erabileraren eta erabiltzaileen populazio-segmentuaren arabera sailkatzea.

EI1.2 Artikuluak, ehun eta larruzko arropak eta etxeke oihalak bereiztea, haien alderdi guztiei dagokienez: egiturazkoak, estetikoak, kalitatezkoak eta funtzionalak.

EI1.3 Artikuluak, ehun eta larruzko arropen eta etxeke oihalen barruko eta kanpoko osagaiak deskribatzea.

EI1.4 Arropak ezagutu eta kategorizatze kasu praktiko batean oinarrituz, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Erabilera zehaztea, baita xede duen populazio-segmentua ere.
- Arroparen alderdi hauek deskribatzea: egiturazkoak, estetikoak, kalitatezkoak eta funtzionalak.
- Arroparen barruko eta kanpoko osagaiak zehaztea.
- Jarraitutako jantzigintza-prozesua ezagutzea.

EI1.5 Etxeko oihalak ezagutu eta kategorizatze kasu praktiko batean oinarrituz, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Taldea eta funtzioa zehaztea.
- Alderdi hauek deskribatzea: egiturazkoak, estetikoak, kalitatezkoak eta funtzionalak.
- Hala badagokio, osagaiak zehaztea.
- Jarraitutako jantzigintza-prozesua ezagutzea.

A2: Artikulu- edo arropa-motaren arabera konponketa egiteko aukera zehaztea, adieraziz egindako lanen ezaugarriak eta eskatutako kalitatearen arabera konplexutasuna.

EI2.1 Arropa eta etxeke oihaletan egin daitezkeen konponketa-motak zerrendatzea.

EI2.2 Konponketaren konplexutasuna deskribatzea, materialaren eta artikuluaren arabera.

EI2.3 Arropa edo artikulu bat konpontzeko egin beharreko desmuntatze- eta muntatze-eragiketa edo -urratsak zehaztea, baita beharrezkoak diren lanabes, erreminta eta makinak ere, eta konponketaren bideragarritasuna eta fidagarritasuna zehaztea.

EI2.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean oinarrituz, arropa bati konponketa bat egiteko aukera eta fidagarritasuna zehaztea:

- Arropa-mota eta haren osagai diren materialak identifikatzea.
- Eskatutako konponketa-mota eta arropen duen kokalekua ezagutzea.
- Beharrezkoak diren eragiketak egitea: desmuntatzea eta muntatzea.
- Behar diren lanabes, erreminta eta makinak zehaztea.
- Ordezkatu beharreko materialak adieraztea.
- Konponketaren bideragarritasuna eta fidagarritasuna zehaztea.

EI2.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean oinarrituz, etxeke oihal bati konponketa bat egiteko aukera eta fidagarritasuna zehaztea:

- Artikulu-mota eta haren osagai diren materialak identifikatzea.
- Eskatutako konponketa-mota eta artikuluaren duen kokalekua ezagutzea.
- Beharrezkoak diren eragiketak egitea: desmuntatzea eta muntatzea.
- Behar diren lanabes, erreminta eta makinak zehaztea.
- Ordezkatu beharreko materialak adieraztea.

- Konponketaren bideragarritasuna eta fidagarritasuna zehaztea.

A3: Arropa eta artikuluen konponketan parte hartzen duten elementuak eta egin beharreko eragiketen ezaugarriak ezagutzea.

EI3.1 Konpondu beharreko arropa edo artikuluekin batera doan dokumentuan jaso beharreko informazioa azaltzea.

EI3.2 Konponketan parte hartzen duten elementuak eta egin beharreko lanen ezaugarriak identifikatzea lan-plangintzan.

EI3.3 Lan-plangintzak interpretatzea eta arropa edo artikulua konpontzeko egin beharreko lanak ezagutzea.

EI3.4 Arropa edo artikulua konpontzeko behar edo prestatzen diren makina, erreminta, lanabes eta osagarriak deskribatzea, ezaugarrien arabera.

EI3.5 Lan-plangintza batean oinarrituz, parte hartzen duten materialak ondorioztatzea, eta, hala badagokio, konponketa bat egiteko aldatu beharreko pieza eta osagarriak zehaztea.

EI3.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batetik abiatuz, etxeko oihal bat konpontzeko lan-plangintza bat egitea:

- Artikulu-mota eta haren osagai diren materialak identifikatzea.
- Egin beharreko lanaren ezaugarriak eta artikuluan duen kokalekua ezagutzea.
- Behar diren lanabes, erreminta eta makinak ezagutzea.
- Egin beharreko eragiketak ezagutzea.
- Ordezkatu beharreko materialak identifikatzea.

A4: Arropa eta artikulua konpontzean, oinarritzko makina eta erremintak doitzea, mozte-, mihiztate- eta akabera-tekniken arabera, segurtasun- eta osasun-neurri prebentiboak betetzea.

EI4.1 Konponketa-makinen informazio teknikoa eta eskuliburukoa interpretatzea, funtzionamendu, doitze eta lehen mailako mantentze-lanei dagokienez.

EI4.2 Arropak eta artikulua konpontzeko prozesuan erabiltzen diren oinarritzko makina eta erremintak deskribatzea.

EI4.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, makina eta erremintak prestatzea konponketa-prozesu baterako:

- Jarduera ordenatzea, jasotako informazioaren arabera.
- Behar diren makina, erreminta eta osagarriak identifikatzea.
- Eragiketa hauek egitea, ohiko prozedura eta teknikak erabiliz: muntatzea eta desmuntatzea; lubrikazioa eta garbiketa; erregulazioa eta doikuntza.
- Lehen mailako mantentze-lanen eragiketak identifikatzea.
- Jardueran segurtasun-eta osasun-neurri prebentiboak betetzea.

A5: Hainbat artikuluren konponketan jantzigintza-teknikak aplikatzea, zati gastatu edo apurtuak baztertzuz, ordezkatzeko, baita zati horiek moztea eta josi edo mihiztatzea ere, materialen ezaugarrien arabera, itxura eta ezaugarri zehatzak lortzeko.

EI5.1 Lan-plangintza batean azaltzea arropa- edo artikulu-mota, konponketaren ezaugarriak eta erabili beharreko baliabide eta materialak.

EI5.2 Kontuan hartu beharreko eragiketen segida deskribatzea, egin nahi den konponketaren arabera.

EI5.3 Konponketaren prozedurak azaltzea, hau da, konpondu beharreko eremuko jostura desegitea, barruko zein kanpoko material tipoak moztea eta jostea (betegarria, forrua) eta konponketan parte hartzen duten beste baldintzatzaile batzuk, hala nola testura, kolorea, marrazkia eta abar.

EI5.4 Moztean kontrolatu beharreko parametro nagusiak identifikatzea, akatsak saihesteko.

EI5.5 Jostura askatutako zatiak eta konpondu beharreko artikuluan txertatzen diren zati berriak prestatzeko eta eskuz edo makinaz josteko eragiketak deskribatzea, artikulua jatorrizko diseinuaren arabera aplikatu beharreko teknikak identifikatuz.

EI5.6 Kontuan hartu beharreko akabera eragiketen segida deskribatzea, egin nahi den konponketaren arabera.

EI5.7 Materialak eskuz edo makinaz lotzeko jostura ezberdinen ariketak egitea, trebetasunez, zehaztasunez, autonomiaz eta estetika-eta eraginkortasun-irizpideekin, eskatutako erresistentzia-, elastikotasun- eta finkatze-kondizioak lortzeko, emandako zehazpenen arabera.

EI5.8 Artikulu bat konpontzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Konpondu beharreko artikulua identifikatzea.
- Jarduerak ordenatzea, jasotako informazioaren arabera.
- Konpondu beharreko eremua detektatzea.
- Hala badagokio, kaltetutako eremuko jostura askatzea.
- Hala badagokio, ordezkatu beharreko zatiak identifikatzea.
- Behar diren makina, erreminta eta lanabesak identifikatzea.
- Materiala hautatzea, konpondu beharreko artikulua arabera.
- Materiala zabaltea, prozesu egokiena erabiliz.
- Hala badagokio, materiala markatzea eta moztea.
- Artikulua josi edo mihiztatzeko eta haren akabera egiteko eragiketak trebetasunez egitea, modu ordenatuan, txukuntasunez, zehaztasunez eta segurtasunez, prozedura eta teknika egokiak aplikatuz.
- Egindako eragiketen kalitatea egiaztatzea, jatorrizko egiturari dagokionez, modu zorrotz eta eraginkorrean, eta detektatutako anomaliak zuzentzea.
- Artikulua moztu edo josteko eta haren akabera egiteko eragiketetan sor daitezkeen lehen mailako arriskuak identifikatzea.
- Jardueran segurtasun-eta osasun-neurri prebentiboak betetzea.

- Dagokion dokumentazioa betetzea.

## Edukiak

- 1. Arropen eta etxeko oihalen ezaugarriak ezagutzea.**
  - o Kanpoko arropak: Jantzigintza, joskintza, euritarako eta uniformeak egiteko.
  - o Barruko arropak: alkandorak, gizezkoen azpiko arropak, emakumezkoen azpiko arropak, etab.
  - o Puntuzko arropak: kanpokoak, barrukoak eta osagarriak.
  - o Umeen arropak: lehen haurtzarora, mutikoak eta neskatoak.
  - o Larruzko arropak: antea, arkume-larrua, ile-larrua eta beste larru-mota batzuk.
  - o Jantzeko gainerako arropa osagarriak: gorbatak, etab.
  - o Arropen osagai eta zatiak.
  - o Hornien, bigarren mailako osagarrien eta bestelakoen osagarrien sailkapena.
  - o Arropen erosotasuna eta kalitatea.
  - o Etxeko oihalen artikuluen ezaugarriak.
  - o Ohea eta bainugela.
  - o Mahaia.
  - o Dekorazioa: errezel gardenak, errezelak, zorroak, tapizak.
  - o Sukaldea eta garbitasuna.
  - o Osagaiak.
  - o Apaingarri eta hornien, bigarren mailako osagarrien eta bestelako osagarrien sailkapena.
  - o Etxeko artikuluen erosotasuna eta kalitatea, erabileraren arabera.
- 2. Arropa eta etxeko artikuluen konponketan aplikatutako jantzigintza-eragiketak**
  - o Eskuz moztea: larruak, oihalak eta beste material batzuk prestatu, zabaldu eta moztea.
  - o Zatiak desmuntatzeko teknikak: zatiak identifikatzea.
  - o Konponketetan hainbat mihizatze-teknika erabiltzea: jostea, itsastea eta abar.
  - o Osagai solteen akabera eta artikuluen amaiera.
- 3. Arropak eta etxeko oihalak konpontzeko erabiltzen diren makina, erreminta, lanabes eta osagarrien prestaketa eta mantentze-lanak.**
  - o Mozteko, mihizatze eta akabera egiteko makinak.
  - o Prensak eta jartzeko osagarriak: krisketak, lokarri-zuloak, etab.
  - o Oinarrizko mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileak.
  - o Jarduera-eskuliburuak edo eskuliburu teknikoak.
  - o Prestatzeko, doitzeko eta makinaren mantentze-lan operatiboak egiteko ekipoak.
- 4. Segurtasuna eta prebentzioa ehun eta larruzko arropa eta artikuluen konponketa eta moldaketetan.**
  - o Arriskuak identifikatzea eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak:
  - o Segurtasun-arauak.
  - o Norbera babesteko ekipamenduak.
  - o Ingurumena babesteko neurriak.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestakuntza-atal hau egiteko, gainditua izan behar du UF1030 Ehun-produktuen mozketa, mihizatadura eta akaberako oinarrizko teknikak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak